



2021/2022 denboraldia

34. ZIRKULARRA

2021-22KO DENBORALDIAN ESKOLARTEKO FUTBOLEAN BAIMENAK EMATEKO IRIZPIDEAK

Zirkular honi erantsi zaio Eskola Futbolaren Jarraipen Batzordeak 2021eko uztailaren 6an egindako bileraren akta. Bertan, 2021-22 denboraldian eskola adinean dauden ikasleen futbol modalitatean baimenak emateko irizpideak jasotzen dira.

Donostia, 2021eko azaroa

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General



BILERAREN AKTA

Gaia: Eskola kiroleko jardueretan futbol modalitateko baimenak emateko irizpideak 2021-22

Lekua: Gipuzkoako Foru Aldundia

Eguna: 2021-07-06

Ordua: 11:00-12:30

BERTARATUAK

	Kargua
Manu Díaz	Gipuzkoako Futbol Federazioa
Iñigo Letamendi	Gipuzkoako Futbol Federazioa
Jon Basurto	Gipuzkoako Futbol Federazioa
Zuriñe Uranga	Gipuzkoako Foru Aldundia
Begoña Irazu	Gipuzkoako Foru Aldundia
Itsaso Nabaskues	Gipuzkoako Foru Aldundia

LANDUTAKO GAIAK

- 2021-22 ikasturtean eskola adinako hurren futbol modalitaterako baimenak emateko irizpideak

2021-22 ikasturterako alebin eta infantil kategorietako hurren futbol modalitaterako baimenak emateko irizpideen gaineko hausnarketa eta irizpideak bateratzeko asmoz bildu da eskola kiroleko futbolaren jarraipenerako batzordea, batez ere taldekideen kopuruari eta dagokiena baino goragoko kategorietan jokatzeko baimenari dagokienez. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak erantsitako dokumentua osatu zuen, aztertua eta eztabaidatua izan ostean, Gipuzkoako Futbol Federazioaren oniritzia jaso duena. Adostutako irizpideen helburua da zaintzea adingabeen beharrak eta interesak, lehenasuna emanda adinagatik dagokien kategorian parte hartzeari. Irizpideak aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzak edo irizpideen artean jasotzen ez diren kasuak Jarraipen Batzordean eztabaidatuko dira. Irizpideak Jarraipen Batzordeak berrikusiko ditu 2020-2023 ikasturterako.

2021eko uztailaren 29a

Itsaso Nabaskues Lasheras

Eskola Kirolean futbolerako jarraipen batzordeko idazkaria

Goizane Álvarez Irijoa

Eskola Kirolean futbolerako jarraipen batzordeko lehendakaria



I. ERANSKINA
FUTBOLERAKO JARRAIPEN BATZORDEAK ESKOLA ADINEKO HAURREI BAIMENAK
EMATEKO 2021-2022 DENBORALDIRAKO ADOSTUTAKO IRIZPIDEAK

1. Modalitatearen berezitasunak

Kadete preferentea	M	25	Federatua	GFF
Ohorezko kadetea	M	25	Federatua	GFF
Kadeteen lehen maila	M	25	Federatua	GFF
Ohorezko kadetea	N	25	Federatua	GFF
Kadetea (3 urte)	N	25	Federatua	GFF
Ohorezko infantila	M	20	Errendimenduan hastea. 32 talde. ¹	GFF
Infantil txiki (1. soilik) ²	M	20	Errendimenduan hastea	GFF
Infantilen lehen maila	M	20 (+2)	Parte-hartzea	OCD
Ohorezko infantila	N	16 (+2)	Errendimenduan hastea	GFF
N8 INFANTILA	N	16 (+2)	Parte-hartzea	OCD
(2. urteko alebinak)	X	16	Errendimenduan hastea* 24 talde gehienez (GFAk gonbidatuta)	OCD
(2. urteko alebinak)	X	16	Perfekzionamendua* Baimendutako hastapen unitateak (GFAk gonbidatuak)	Lizentziarik gabe
Benjaminak eta alebinak	X	Librea	Oinarria* Baimendutako hastapen unitateak	Lizentziarik gabe
Infantilen areto futbola		8-15	Parte-hartzea	OCD
Alebinen areto futbola		8-15	Parte-hartzea	OCD
Benjaminen areto futbola		Librea		

* Multikirolean parte hartzen duten ikasleentzat bakarrik



2. Baimen bereziak

2.1. Irizpide orokorrak

- Oro har, ikasle bakoitzak bere adinari dagokion kategorian parte hartu beharko du. Araua zorrotz aplikatuko da benjamin eta alebin kategorietan.
- Lehen urteko infantil bati ez zaio baimenik emango kadete kategorian parte hartzeko. Infantil kategoriako txapelketa bakarra badago (nesken futbola eta areto futbola), aztertuko da.
- Ikasturtean zeharreko txapelketak: benjamin kategoriatik aurrera baimena ematen da txapelketetan parte hartzeko, betiere opor garaian (Gabonak, Aste Santua edo uda), Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) aurrez baimena emanda. Ikasturteko zubi eta jaiegunetarako ez da baimenik ematen txapelketetan parte hartzeko.
- Salbuespenezko kasuak banaka aztertuko dira. Zalantzarik izanez gero, GFAk Gipuzkoako Futbol Federazioarekin kontsultatuko du.

2.2. Baimen eskaera

- Dokumentu honetan jasotzen diren egoerak baimentzeko, GFARI **baimena eskatu** beharko zaio telematikoki, [esteka](#) honen bidez. Lizentzia federatua eskuratzeko eskaerak eta «egoera berezi»ei buruzkoak **izendunak** izango dira.
- Eskaera tramitatu ahal izateko, entitate eskatzaileak xehetasunez zehaztu beharko du zergatik egiten duen eskaera, baimena justifikatzeko argudio teknikoak emanda betiere adingabeen ikaskuntza prozesua eta interesak lehenetsita.

2.3. Irizpide espezifikoak

A) Nesken futbola

- **Infantil N8 taldeetako kide kopurua** (16 gehienez):
 - Baimenduta dago ezarritako kide kopurua baino kide 1 edo 2 gehiago izatea. Baimen mota: egoera bereziak.
- **OHOREZKO INFANTIL N8 taldeetako kide kopurua** (16 gehienez):
 - Baimenduta dago ezarritako kide kopurua baino kide 1 edo 2 gehiago izatea, lehenetsita infantilek beren kategorian joka dezaten. Baimen mota: egoera bereziak.
- **2. urteko alebinek infantiletan jokatzeko:**
 - Baimentzen da infantil taldea osatzeko (11 jokalaria) beharrezko alebin jokalarien kopurua, betiere herrian ez badago beste talderik. Baimenak



alebinen taldean eragina izan dezakeenez, kasu bakoitza banaka aztertuko da.

- **Infantilek kadete taldean jokatzeko:**

- **INF-KAD-KAD:** 1 eta 2. urteko infantilek kadete taldean jokatzeko: kadete kategorian 3 urte desberdinetako jokalariek biltzen direnez, kasua sakon aztertuko da jokalarien interesak zaintzeko, beren esperientzian eragina izan dezakeelako garapen biologikoaren eta kirol mailaren arabera. Hartara, oro har, baimena emango da soilik haurrak baldin baditu kadete kategorian ongi moldatzeko eta ikaskuntza esperientzia positiboa izateko ezaugarriak, betiere herrian talde bakarra badago. Baimentzen dira kadete taldeko gutxieneko jokalaria kopurua osatzeko hainbeste kide, gehienez ere 4 jokalaria. Baimen-mota: 3.1. Salbuespeneko beste kasu batzuk banaka aztertuko dira.

- **INF-INF-KAD Ohorezko infantiletik parte-hartze kadetera eta ohorezko kadetera**

2021ean baimendu da gehienez ere **ohorezko 4 infantil** edo kadete taldea osatzeko hainbeste (18,, helburua zen lehenestea infantil kategorian lehiatzea eta aukera izatea kadete mailan jokalariren bat izatea, jokalariek falta baizazkie. Baldintza izango da asteburu bakoitzeko partida bakarra izatea.

- **Kadeteak infantil taldean jokatzeko:**

- Kadete bati baimena emango zaio infantileko parte-hartzeko talde batean jokatzeko, betiere taldeak edo jokalariek ez badu Gipuzkoako Txapelketako azken faseetan parte hartzen. Baimen mota: egoera bereziak.

B) Mutilen futbola

- **Kide kopurua**

- Parte-hartzeko lehen mailako infantila (20 gehienez): baimentzen da gehieneko kopurua baino 2 kide gehiago izatea gehienez. Ez da onartzen infantil txikia edo ohorezko infantilean (biak errendimenduko lehiaketak dira). Baimen mota: egoera bereziak. Herrian talde bakarra dagoen bestelako egoerak banaka aztertuko dira.
- Errendimenduan hasteko eta hobetzeko taldeak (alebinen 2. urtea)
 - a) Errendimenduan hasteko taldeak: gehienez 16 jokalaria (edo inskribatuta daudenak, gutxienekoa errespetatuta). Ez dago aukerarik ikasturtean zehar kideak aldatzeko.



- b) Aurreko faseko taldeak: gehienez 16 jokalaria (edo inskribatuta daudenak, gutxienekoa errespetatuta). Ez dago aukerarik ikasturtean zehar kideak aldatzeko.
- c) Perfekzionamendu taldeak, aurreko fasetik iritsiak: gehienez 16 jokalaria (edo inskribatuta daudenak, gutxienekoa errespetatuta). Ez dago aukerarik ikasturtean zehar kideak aldatzeko.
- d) Perfekzionamendu taldeak hasieratik: gehienez 16 jokalaria, malgutasunarekin udalerrian talde bakarra dagoen kasuetan. Ez dago aukerarik ikasturtean zehar kideak aldatzeko.
- Oinarriko taldeak (benjamin eta alebin kategoriak): Librea (ez dago kide mugarik). Ikasturtean zehar eman dakieke alta hurrei.
- **2. urteko infantilek kadeteetan jokatzeko. Lehentasun ordena honetan aplikatu beharreko irizpideak:**
 - **INFANTIL-INFANTIL-KADETEA** (lizentzia bikoitza ematea):
 - a) **2. urteko ohorezko infantilek kadete lehen mailan jokatzeko:** Ohorezko infantileko haur bat lehiatu daiteke kadete kategorian (lizentzia federatua) kadete lehen mailako talde bat osatzeko, betiere kategoria desberdinetako bi partidetan parte hartzen ez badu asteburu berean. GFFak eramaten du kontrola. Gehienez talde bakoitzeko infantileko 6 jokalaria baimentzen dira, edo 18 jokalariko gutxienekoa osatu artekoak. Baimen-mota: 3.1
 - b) **Ohorezko infantileko 2. urtekoek ohorezko kadeteen jokatzeko:** Salbuespenezko arau gisa, irizpide teknikoagatik (haurren kirol ezaugarriak).
 - **INFANTIL-KADETE-KADETEA:**
 - a) Salbuespeneko kasu batzuetan, kadete talde bat osatzearen, INF-KAD-KAD lizentzia baimentzen da, betiere denboraldi hasieran eskatzen bada kadete taldeko kiderik ez kaltetzeko. Baimendutako jokalaria denboraldi osoan jokatuko du soilik kadete taldean. 18 jokalariko gutxienekoa osatzeko beharrezko gehienekoa baimenduko da. Erdia gehi batek kadete kategoriakoak izan beharko dute. Baimen baldintzatua: denboraldian zehar kadeteren bat sartzen bada taldean, baimendutako jokalaria infantilak bere kategoriari dagokion taldera itzuli beharko du. GFFak eramaten du kontrola. Baimen-mota: 3.1



- b) Parte-hartzeko infantilak **ezin du bateratu kadete talde federatu bateko parte-hartzea**. Kasu horretan, **INF-KAD-KAD lizentzia** baimenduko da, baina ez INF-INF-KAD lizentzia. Jokalari kopuruari dagokionez, a) atalean ezarritako irizpideak jarraituko dira.
- c) Salbuespen gisa, klubak ez badu talderik Ohorezko infantil taldean, eta ez bada lortzen jokalaria horiek infantilen lehen mailan kokatzea, gehienez ere 4 jokalariri edo 18 jokalariko gutxienezko iristeko beharrezkoei INF-KAD-KAD lizentzia baimenduko zaie Infantileko lehen mailako taldeetako 2. urteko infantilei.

***COVID garaian (2020-2021) aplikatutako irizpidea:** Infantiletako 2. urtekoei kadete kategorian jokatzeko, kadete taldea osatzeko eta murrizketengatik lehiatu ezin ziren 2. urteko infantilei irteera emateko (INF-KAD-KAD). Baimendua, baina baldintzekin. Baimen-mota: 3.1

Eskola kiroleko mahaiaren erabakia, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Erabaki zen taldea osatzeko gutxienezkoa izango zela 18koa kadete taldean. 2021-22 ikasturtean kopuru hori mantendu da talde bakoitzeko kideen gutxienezko kopurua zehazteko.

2021-2022 ikasturterako erabaki da irizpide hori mugatzea gehienez 6 jokalarira, betiere kadete taldea osatzeko bada. Normaltasuna itzultzen bada, aurreko puntuan aipatutako irizpidea aplikatuko da eta irizpide hau ez da baliozkoa izango.

C) Areta futbola

- **INFANTIL-INFANTIL-KADETE:** 2. urteko infantil bat kadete taldean lehia daiteke (lizentzia federatua), betiere ez badu kategoriatik desberdinetako bi partidutan parte hartzen asteburu berean. Erdiak gehi batek kadete izan behar dute. Kontrola Federazioak eramango du. Baimentzen dira taldea osatu arte gutxienez 15 jokalarirekin. Baimen-mota: 3.1
- **INFANTIL-KADETE-KADETE:** kasu bakoitza banaka aztertuko da.
- Benjamin kategoriako areto futboleko eskolei baimena ematen zaie esparru geografikoa gainditzeko, betiere errespetatzen bada Aldundiak kirol eskolen arteko partidetarako proposatutako egutegia. Arrazoia: areto futboleko eskola gutxi daude (4-5 talde benjaminetan eta 4-5 alebinetan). Baimentzen da



«topaketak» antolatzea kontzentrazio gisa eta kategoriara; hartara, benjaminek lurralde esparruan parte hartuko dute.

- 2021-22an ez da Kadete liga osatzeko talde nahikorik egon. Kadete taldeari baimena ematen zaio Infantil ligan parte hartzeko. Baldintzak: Hurrek dagokiena baino beheragoko kategoria bateko jardueretan parte hartzeak suposatzen du dena delako taldeak ezingo duela Gipuzkoako Txapelketako azken faseetan parte hartu.